

OINHARRIZKO EUSKARA "HITZ EGIN" METODOA ARGITARATU DA

I. Berriatua

Euskaltzaindiak, Oinharrizko Euskarako Batzordea eratu zuenean, batzordekoei metodo bat egiteko esan zigun. Berehalaxe hasi ginen lanean, eta hemen daukazue metodo horren lehen liburua. Holako beste liburu bi falta zaizkigu, metodo osoa bukatzeko.

Orain laburki esango dizuet, lehen liburu hau nolakoa den eta nola egin dugun. Beronen izena HITZ EGIN da. Hitz eragitea da metodo honen helburu nagusia. Lehen egunetik hasten dira ikasleak berba egiten. Gero eta gehiago berba egiten.

Metodoak hirurogei ikasgai dauzka. Ikasgaien oinharria elkar hizketak dira. Elkar hizketa arruntak, naturalak, kaleko gizonak bere eguneroko bizitzan erabiltzen dituenak. Alde hortatik abantaila handia eskaintzen digu metodoak, euskaldundu behar ditugun bi milioi pertsontatik gehien gehienak kaletarrak baitira.

Lehen liburu hontan, Oinharrizko Euskararen lehen maila azaltzen da. Ikasleek presentean eta futuroan bakarrik hitz egiten dute. Esaldi subordinaturik ez dago bat ere. Egitur hitzak (hitz estrukturalak) geldi geldika agertzen dira. Ikasleek, ia konturatu gabe berenganatzen dituzte euskal estrukturalak. Euskara da, ikasgelan entzuten den hizkuntza bakarra. Ahal dela, ez da inoiz erdarazko itzulpenik egiten.

Ikasleak, lehen liburua amaitzen dutenean, gai dira 1. mailako Oinharrizko Euskarazko Liburuxkak irakurtzeko eta ulertzeko. Oraingoz, maila hontako liburuxka bat bakarrik argitaratu dugu: **Errekalde kaleko burruka**. Holako beste liburuxka asko argitaratzeko asmoa daukagu. Denak lehen mailakoak. Geroago etorriko dira beste mailakoak, Oinharrizko Euskarak dauzkan mailen arabera. Metodo honen

bidez, mailakatu egin dugu euskara. Aurrerantzean, euskal idazleek segurtasun guztiz jakin ahalko dute zein mailatan idazten duten. Mailakatze hau metodo honi zor diogu.

Metodo hontan irakaslea oso inportantea da. Irakasleak guztiz ona izan behar du. Horregatik, irakasleak bere liburua dauka. Liburu hortan zehazki esaten zaio irakasleari, zer egin behar duen eta nola irakatsi behar dituen ikasgaiak. Nire ustez, irakaslearen liburua ematen dio metodo honi baliorik handiena. Israelen esan zidatenez, irakaslego ondo prestatuak batez ere obratu du han hebraieraren pizkunde miragarria.

Metodoak zazpi sail dauzka: Hitzaurrea, Ikasgaiak, Kantuak, Hitzen deklinabidea, Aditzen jokabidea, Hiztegia eta Ariketa Idatziak.

Hitzaurrean, metodoari buruzko azalpenak egiten dira.

Bigarren sailean, ikasgaietan, 562 irudi agertzen dira, eta gutxi gorabehera 550 berba desberdin.

Gero, kantuak datoz. Kantuen bidez, ikastaldiak apurtxo bat arindu egiten dira, gozatu, eta, bide batez, ikasitako gauzak finkatu eta sakondu.

Laugarren eta boskarren sailetan, textuan deklinatu eta jokatu diren hitzak eta aditzak, denak bildurik agertzen dira, ikasleek deklinabide eta jokabidearen ikuspegi orokor bat eduki dezaten.

Hiztegian, hirurogei ikasgaietako hitz guzti guztiak, dau-den bezalaxe, agertzen dira. Hitz desberdin bakoitzari irudi bat ezarri zaio alboan, eta hitz berori agertzen den esaldi bat. Irakasle esperientziak erakusten digunez, ikasleek oso gaizki azentuatzen dituzte hitzak. Arazo honek arriskutan jartzen du euskara. Euskaldun berriek, bi milioi hoiek, berbak txarto azentuatzen badituzte, hondatu egingo dute euskara, eta ito egingo gaituzte ondo azentuatzen dugunok. Horregatik, Hiztegi hitz guztiak azentu grafikoz horniturik agertzen dira.

Eta, azkenik, Ariketa Idatziak datoz, beste liburu berezi batetan, ikasleek eskolarako lana etxean egin dezaten.

Bukatzeko, ohar inportante bat. Liburu hontan, beharbada, akatsak eta gauza eztabaidagarriak aurkituko dituzue. Egin duguna probisional da. Horrexegatik jarri dugu liburua azalean "behinbehinekoa" dioen zigilu handi bat.